

DONOSTIA / 'Ipuinaren ordua' eskainiko dute bihar eta etzi Altza eta Larratxoko liburutegietan

Ekitaldiak txikienei zuzenduta daude eta helburua euskarazko lanak irakurtzea da

Donostia. Haurrentzako ekitaldiak antolatu dituzte aste honetan Altzako kultur guneeetan. Urtarrila hasieratik egiten ari diren bezala, ipuin irakurketak izango dira Casares-Tomasenen eta Larratxoko liburutegian aste honetan.

Bihar euskaraz idatzitako ipuin kontaketa izango da, berriz ere Altzako gaztetxoentzat. 17.30ean hasiko da txikienei zuzendutako jarduera Tomasene kultur etxean. Ekitaldia 3 eta 5 urte bitarteko umeei zuzenduta dago eta Itzulipurdika entzuteko ipuinak lana entzuteko aukera izango da. Ostegunean, berriz, Larratxoko liburutegian izango da ekitaldia. Oraingo honetan, Txingurriak bezain ipuin txikiak lana eskainiko dute. Bertara gerturatzeko asmoa dutenek 18.00etan joan beharko dute auzoko liburutegira.

Ekimenaren helburuetako bat euskarazko lanen berri ematea da. Gainera, hurrei zuzendutako jardueren eskaintza zabaldu nahi dute. Bi egunetan, sarrera doakoa izango da. >a.a.